



**EBAZPENA, 2020KO URRIAREN 13KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDATZEN BAITA JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIAREN 2020KO EKAINAREN 8KO EBAZPENA, ZEINAREN BIDEZ AKTIBATU BAITZEN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN DESESKALADARAKO PLANAREN 3. FASEA, COVID-19AREN HARIRA.**

---

Justizia Administrazioako zuzendariaren 2020ko ekainaren 8ko Ebazpenaren bidez, Justizia Administrazioaren deseskaladarako planaren 3. fasea aktibatu zen, Covid-19aren harira, eta han ezarri zen zer organotan edo bulegotan bete behar ziren goizeko eta arratsaldeko txandetan lanpostuei zegozkien eginkizunak, langileen arteko segurtasun-distantzia mantentzen zela bermatzeko.

Hala ere, ebazpen hori argitaratu ondoren, Zuzendaritza honek guneak egokitzen jarraitu zuen, langileak ohiko lanaldira, hau da, goizekora, itzuli ahal izateko. Horri esker, lanpostu berriak ezarri dira organoetan eta bulegoetan, eta osasungintzako agintaritzek gomendatutako segurtasun-distantziara egokitu dira, langileek beren eginkizunak bete ahal izateko, segurtasuna bermatuta izanik. Horren ondorioz, Justizia Administrazioako zuzendariaren 2020ko ekainaren 25eko Ebazpena eman zen. Horren bidez, zuzendari horren 2020ko ekainaren 8ko Ebazpena aldatu zen, eta jaso zen zer organotako edo bulegotako lanpostuak ezin izan ziren egokitu, ordura arte, segurtasun-neurrietara.

Ebazpen hori eman ondoren, langileen arteko segurtasun-distantzia bermatu ezin izan zen guneak berrantolatzen jarraitu da, eta beste neurri batzuk hartu dira, ahalik eta langile gehienek goizez lan egiteko aukera izan zezaten, ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuan —COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriena— xedatutakoaren arabera.

Honezkero, organo edo bulego gehiagotako langile guztiek goizez lan egin dezakete segurtasuna bermatuta izanik. Hortaz, 2020ko ekainaren 25eko Ebazpenaren eranskina aldatu behar da, eta ebazpen honen eranskinean jaso behar da zer organotan edo bulegotan eusten zaien goizeko eta arratsaldeko txandei.

Horregatik guztiagatik,


### **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.** - Batetik, Justizia Administrazioiko zuzendariaren 2020ko ekainaren 8ko Ebazpenaren eranskina aldatzea. Ebazpen horren bidez, Justizia Administrazioaren deseskaladarako planaren 3. fasea aktibatu zen, Covid-19aren harira. Bestetik, ebazpen honen eranskinean jasotzea zer organotan edo bulegotan eman behar dituzten langileek zerbitzuak goizeko eta arratsaldeko txandetan.

**Bigarrena.** - Ebazpen honek 2020ko urriaren 14tik aurrera izango ditu ondorioak.

**Hirugarrena.** - Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 13a



Jon Arturo Uriarte Unzalu

**JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA**

**ERANSKINA**

Lurralde historikoa	Barruti judiziala	Organoa edo bulegoa	Langile-kopurua, goizez	Langile-kopurua, arratsaldez
ARABA	VITORIA-GASTEIZ	Arlo zibileko 1 zenbakiko ZULUP	3	2
		Arlo zibileko 2 zenbakiko ZULUP	2	2
		Arlo zibileko 3 zenbakiko ZULUP	2	2
		Arlo zibileko 5 zenbakiko ZULUP	4	1
		Arlo zibileko 6 zenbakiko ZULUP	2	2
		Arlo zibileko 7 zenbakiko ZULUP	3	3
		Instrukzioko 1 zenbakiko ZULUP	4	3
		Instrukzioko 2 zenbakiko ZULUP	5	2
		Instrukzioko 3 zenbakiko ZULUP	4	3
		Instrukzioko 4 zenbakiko ZULUP	4	3



Lurralde historikoa	Barruti judiziala	Organoa edo bulegoa	Langile-kopurua, goizez	Langile-kopurua, arratsaldez
---------------------	-------------------	---------------------	-------------------------	------------------------------

BIZKAIA	BARAKALDO			
		Zigor-arloko taldea	6	5
		Instrukzioko 1 zenbakiko ZULUP	5	4
		Instrukzioko 2 zenbakiko ZULUP	5	2
		Instrukzioko 3 zenbakiko ZULUP	4	3
		Instrukzioko 4 zenbakiko ZULUP	4	3
		Indarkeriaren arloko taldea	4	3
		ZERBITZU ERKIDE PROZESAL EXEKUTIBOA		
		Arlo Zibileko Atala	16*	8
		Zigor Arloko Atala	8	8
		ZERBITZU ERKIDE PROZESAL OROKORRA		
		Erregistroen eta Banaketen Atala	4 (+1 guardian)	2
		Arlo zibileko 1-6 zenbakietako ZULUPak	8	6

\*Kudeatzaile arduraduna barne

BIZKAIA	BILBO	AUDIENCIA PROVINCIAL		
		5. atala	5 + 1 laguntzaile	2
		Lehen Auzialdiko 14 zenbakiko Epaitegi	6 + 1 laguntzaile	5
		Zigor-arloko 7 zenbakiko Epaitegia – betearazpenak	28 + 3 laguntzaile	9



Lurralde historikoa	Barruti judiziala	Organoa edo bulegoa	Langile-kopurua, goizez	Langile-kopurua, arratsaldez
---------------------	-------------------	---------------------	-------------------------	------------------------------

GIPUZKOA	DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	SCACE	6 (+9 laguntzaile)*	7 laguntzaile
----------	------------------------	-------	---------------------	---------------

\*Kudeatzaile arduraduna bane

### BULEGO FISKALA

Lurralde historikoa	Barruti judiziala	Organoa edo bulegoa	Langile-kopurua, goizez	Langile-kopurua, arratsaldez
---------------------	-------------------	---------------------	-------------------------	------------------------------

ARABA	VITORIA-GASTEIZ	Probintzia Fiskaltza	11	5
-------	-----------------	----------------------	----	---

BIZKAIA	BARALKALDO	Fiskaltza - Lurralde Atala	5	4
BIZKAIA	BILBO	Zigor Arloko Fiskaltza	9	9

GIPUZKOA	DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	Probintzia Fiskaltza	18	9
----------	------------------------	----------------------	----	---

### AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL INSTITUTUA

Lurralde historikoa	Barruti judiziala	Organoa edo bulegoa	Langile-kopurua, goizez	Langile-kopurua, arratsaldez
---------------------	-------------------	---------------------	-------------------------	------------------------------

BIZKAIA	BILBO	Zerbitzu Erkide Orokorra	14	3
---------	-------	--------------------------	----	---